

AURKEZPENA

Unibertsitateari sarri askotan leporatzen zaio akademiaren inguruko eztabaidatik kanpo bizi dela, bolizko dorre batean balego bezala. Munduan, bien bitartean, urtero milaka lagunek bizia, osotasuna edo ongizate fisiko, psikiko eta soziala galtzen dute lanean aritzearen ondorioz.

EHUko Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskola egoera sozial horri erantzuna ematen saiatu da hezkuntzaren bidez, eta aspalditik lortu du ikasle guztiek prebentzioari buruzko oinarrizko heziketa izatea. Ondoren, ikastaro osagarriak eta graduatu ondoko ikastaroak eskaintzen izan ditu maila ertaina eta goi maila lortzeko. Gaur egunean, ahaleginak egiten ari gara gure ikasleek ikasketak amaitzerako prebentzioari buruzko goi mailako egiaztapena lortzeko beharrezko heziketarako orduak egin ditzaten.

Gainera, lan arriskuen prebentzioa, horren alde desberdinak aztertuta, ikerketarako gai izan da Eskolako irakasleentzat, aldizkari honetan agiri denez.

Lan Harremanak gure aldizkariaren ale honen bidez beste urrats bat egin nahi dugu ibilbide honetan, eta horretarako lan arriskuen prebentzioari buruzko diziplina anitzeko gogoetarako bidea eman nahi dugu; hainbat jatorri eta ikuspegitako gogoeta hain zuzen, baina mundu akademikoan eska daitekeen zorrotasunarekin. Aldizkaria argitaratzea eta hedatzea gure unibertsitatearen «*Eman ta zabalzazu*» lema adierazgarri dira, zeren eta Unibertsitatean gizarteak ematen dizkion baliabideekin sortzen den ezagutza hedatu beharra dago, herritarren bizitza eta lan egoera hobetzeko lagundu behar du, eta hala eman zaigun Herri Zerbitzuari dagokion eginkizuna bete egiten dugu.

Lan arriskuen prebentzioa Europako Batasunak bultzaturiko gizarte politikarik garrantzitsuenetakoa bat da, eta Bilbon egoitza duen Lan Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentzia sortzea da haren isla. Zuzendariak, Hans-Horst Konkolewsky-k, agentziaren eginkizunak azaltzen ditu artikuluan eta Europako Batasunaren lan segurtasunari eta osasunari

buruz egindako diagnostikoak aurreratu dizkigu; artikulua onduko datuak urteotan Europako prebentzioa planifikatzeko markoa ezarri dute.

Espainiako Estatuan, azken aldian arreta gehien sortarazi duen ekimen instituzionaletako bat Federico Duran katedradunak egin duen txostena da, Espainiako Gobernuak presidentek eskatuta. Berez, prebentzioaren egoera larriaren sintoma zen Lan Arriskuei buruzko Legea hainbat urtetan indarrean izan ondoren. LAB sindikatuko Lan Osasun eta Ingurumeneko arduradun nazionalak, Juan Jose Rodriguezek, txosten hori aztertu du artikulu batean sindikatuen ikuspegitik.

Enpresa txikiak eta ertainak dira, hain zuzen, prebentziorako sistemaren alderik ahulena. Horien artean, mikroenpresak nabarmentzen dira; izan ere, langileen %25i baino ez diote lanik ematen eta jasandako istripuen %40 biltzen dute. Egoera hori hobetzen saiatzeko, Gizarte Segurantzaren prebentziorako jardueri buruzko Plan nagusia abiarazi da. Plan hori Lan Istripuetako Mutuek landu behar dute eta berau Cyclops Mutuaren Prebentziorako Zerbitzuen Zuzendaria den Alejandro Romerok aztertu du aldizkari honetan.

Prebentzioari buruz indarrean dagoen araudia betetzeak edo ez eta prebentziorako neurriak hartzeak edo ez ondorio garrantzitsuak izan ditzake langileen segurtasunean eta osasunean, baina erantzukizunak ere ekar ditzake erabakiak hartzeko ahalmena duten pertsonentzat. Erantzukizunak penalak, ekonomikoak, lan-diziplinakoak izan daitezke, edo bestelakoak ere bai (Administrazioarekin kontratatzerik ez izatea eta irudi txarra, esaterako). Horiek erantzukizun guztiak sakon aztertu ditu Manu Iturratek, EHUko Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolako irakasleak.

Lan mundua ziztu bizian bilakatzen ari da eta behin-behinekotasunak, lan antolaketaren aldaketek eta berau biziagoa egiteak erlazio zuzena dute lan tokiko indarkeria eta presio psikologikoak areagotzearekin, aldi berean egoera horiei talde gisa erantzuna ematen zailagoa egitearekin batera. Lan antolaketa ezinbestean kontuan hartzeko faktore bihurtu behar da laneko pairamen psikologikoa gutxitu nahi bada. Eginkizun horretan dihardu Laurent Vogel-ek, Sindikatuen Europako Konfederazioaren lan segurtasun eta osasunerako Europako sindikatuen bulego teknikoko adituak (BTS).

Baina lan mundua ez da gizonak eta emakumeak berdintasunez tratatzen diren esparrua. Ikerkuntzak ez ditu aintzat hartzen haien ezaugarri fisikoak eta eginkizun desberdinak, eta ikusezinak bihurtzen dira emakumeek lanean dituzten arriskuak. Joera hori hautsi egin du Quebec-eko

Unibertsitateak Montrealen; izan ere, ergonomiatik abiatuta, emakumearen egoera aztertu du hainbat lan arlotan, eta azkenik emakumeak zigortzen dituzten arriskuaren amaierarik gabeko istorioa hautsi du. Arriskuok direla-eta, gaixotu egin izan da emakumea, eta arriskuak ezagutzen ez direnez gero, inork ez ditu ez aztertzen ez aurreikusten, CINBIOSEko Karen Messing eta Ana Maria Seifert ikerlariak artikuluan azaltzen duten bezala. Gaiak eta metodologiak gain, bereziki interesgarria da Unibertsitatean ikertzeko fondoak izatea, gizarte taldeen eskariei aurre egiteko, kasu honetan sindikatuak eta emakume taldeak.

Azkenik, gure gizartean gertatu diren aldaketa teknologikoek ahalbidetu egiten dute informazio kopuru handi bat gero eta pertsona gehiagoren eskura izatea Interneten bidez. Prebentzioari buruzko informazioa lortzeko sareak ematen dituen aukerei buruzkoa da, hain zuzen, STEE-EILAS sindikatuko lan osasuneko koordinatzailea den Ruben Belandiaren artikulua.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIUZARTETA

Lan Harremanak Aldizkariko Zuzendaria